

# Osoko bilkura

Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, 2017ko urriaren 6an.

## Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Arkotxa, Aurelia,  
Iñigo, Andres,  
Kaltzakorta, Jabier,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Salaberri, Patxi,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi eta  
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,  
zegozkion gaietan.

**Ezin etorria adierazi dutenak:** Miren Azkarate, Jose Irazu “B. Atxaga”, Joseba Lakarra, Joan Mari Torrealдай eta Mikel Zalbide.

**Ahalak:** Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arkotxari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni

Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2017ko urriaren 6an, ostiralean, 10:00etan hasi da Iruñean, Nafarroako Parlamentuan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman du goizean zehar Osoko bilkura eta, 18:00etan, Nafarroako Parlamentuaren atalondoan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* erakusketaren inaugurazioa egingo direla.

Aztergaieiei ekin aurretik, Ainhoa Aznarez Nafarroako Parlamentuko lehendakaria batzar aretora sartu da eta euskaltzainak agurtu ditu. Ongi etorria adierazi eta Euskaltzaindiak euskararen lurralde guztietan euskararen alde egiten diharduen lan eskerga azpimarratu du. A. Urrutia euskaltzainburuak, Osoko bilkura egiteko, bai eta *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* erakusketa antolatzeke, Nafarroako Parlamentuak eman dituen erraztasunak eskertu dizkio A. Aznarezi.

### **1. Osoko bilkurako (2017-06-30) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz**

Idazkaritzak bi idatzi bidali zituen: bata, uztailleko Osoko bilkura ez egiteko Zuzendaritzak hartutako erabakia jakinarazteko, eta, bestea, bilera-agiri proposamena.

A. Urrutia euskaltzainburuak Idazkaritzan oharrrik jaso den galdetu du. Halakorik ez dela jaso aditzera eman da. Horrela, norbaitek oharrrik egin nahi duen galdetu du. Edukiari dagokionez, inork ez du oharrrik egin. Nolanahi ere, M. L. Oñederrak letra etzanean joan behar duen pasarteren bat ageri dela esan du. Ohar hori bidaliko du Idazkaritzara kontuan hartua izan dadin.

Bestelakorik egon ez denez, bilera-agiria onartu da.

### **2. Exonomastika. “Europako errege-erreginen grafia ez aldatzeko data”. Batzordearen proposamena**

Aztergaia jorratzeko hitza X. Kintana Exonomastika batzordearen buruak hartu du. Gogorarazi duenez, Osoko bilkurak, 2017ko maiatzean, gaur egungo errege-erreginei grafia ez aldatzea hobetsi zuen; erabaki zuen, halaber, hori arau moduan ez, baizik eta gomendio moduan plazaratzea, eta Exonomastika batzordeari eskatzea azter eta proposa zezala zer data izan litekeen egokia grafia-aldaketa ezartzeko.

X. Kintanak azpimarratu duenez, eskaera horri erantzuteko, bi ardatz dituen proposamena aurkeztu du Exonomastika batzordeak. Batetik, helburua, zehaztea noiztik aurrera ez den aplikatu behar errege-erreginen eta kidekoen izenen grafia ez aldatzeko irizpidea. Bestetik, abiapuntua (Osoko bilkurak emanda), gaur egun bizirik daudenei (erregetzan egon zein ez) ez aldatzea izenaren grafia. Horrela, Exonomastika batzordeak paraturiko idatzia irakurri du.

Proposamena aurkeztu ondoren, A. Sagarnak Ekialdeko errege-erreginen izenen grafiari buruz zerbait proposatuko den galdetu du. X. Kintanak ezetz esan dio. Ondorioz, euskaltzainek ematen den gomendioan ohar bat gehitzea garrantzitsua dela adierazi dute, gaizki-ulerturik egon ez dadin.

Oharrak egiteko epea urriaren 20ra arte irekitzea erabaki da Osoko bilkuran.

### 3. Exonomastika. “Errenazimentuko pertsona-izenak”. Erabakia hartu

X. Kintanak gogorazi du 2017ko maiatzaren 26ko Osoko bilkuran araugaia aurkeztu zela, eta oharrak egiteko epea ekainaren 26an, astelehenean, amaitu zela.

A. Urrutia euskaltzainburuak oharrik jaso den galdetu du. Ez dela jaso aditzera eman da. A. Iñigo euskaltzainak adierazi du oharrik ez duela egin, baina araugaiak, hainbat pertsona-izen izendatzeko orduan, bi aukera ematen dituela azpimarratu eta araugaia hala emango den galdetu du. Horrekin batera, gogorazi du maiatzaren 26ko Osoko bilkuran, ustez, zenbait pertsona-izenetan irizpide desberdinak erabiltzen zirela, eta ez ote den komeni zerrenda hura gainbegiratzea.

Gauzak horrela, oharrak egiteko beste epe bat, urriaren 20ra bitartekoa, irekitzea erabaki da Osoko bilkuran.

### 4. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua- ren 2020ko abenduaren 31 arteko lanaren antolaketa

A. Sagarna “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-  
ren buruak hartu du hitza, eta batzorde ahaldundua-  
ren 2020ko abendu-  
aren 31 arteko lanaren antolaketa azaldu du. Batzorde honen barne ibilbidea Zuzendaritzari aurkeztu zitzaion, 2017ko uztailaren 12an. Zuzendaritzak aurkezturiko dokumentua onartu zuen Baionan, 2017ko uztailaren 24an, egin zuen bilkuran. Era berean, Zuzendaritzak bilkura horretan erabaki zuen batzorde honen lanaren antolaketaren berri Osoko bilkurari ematea.

A. Sagarnak argitu duenez, gaur azaldu den antolaketa *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egiteko erabilitako bera da.

Azalpenaren ondoren, hitza P. Uribarren euskaltzainak hartu du. Gogorarazi duenez, batzorde ahaldunduko kidea da bera. Nolanahi ere, aurkeztu den prozedurarekin, lanari erantzuteko -hileroko 180 berba aztertzea eta, egoki irizten dionean, iruzkinak egitea eta dokumentatzea- esfortzu handia egin behar da eta, jada, beste konpromiso batzuk ditu, ondorioz, zail ikusten du lan-karga horri erantzutea.

A. Sagarnak argitu du begiz jotako hileroko hitz kopurua 2017ko martxoan egini-  
ko Barne jardunaldietan auresan zela. Edozein gisaz, hiztegia ontzeko egiten diren aurrelanetan hitz bakoitza ondo dokumentatzen denez gero, normalean etortzen diren oharrak gutxi izan ohi dira. Hitz bakoitzaren atzealdean dauden oharrak

jasotzearen garrantzia azpimarratu du, etorkizunean edonork kontsultatu dezakeelako hitz bakoitzaren ibilbidearen nondik norakoa. Horrela, P. Uribarrenen iritzia garrantzitsua dela eta dezakeena egin dezan eskatu dio. Era berean, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* argitaraldi berrian, Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko lantaldeak eginiko hiztegi espezializatuetatik zenbait hitz jaso eta definitu beharko direla aditzera eman du. Hitzak aukeratzekoan, ordea, kontuz ibili beharko da, hitz batzuk definitu ahal izateko teoria osoak behar direlako. Ondorioz, erabiltzaile arruntek ezinbestean behar dituztenak jaso eta definitu beharko dira.

Kolokazioak hizpide hartuta, A. Sagarnak esan du hiztegiak hiztunen hizkuntza-maila jasotzeko baliagarriak ere badirela eta, horretarako, hiztegiak ondo erabiltzeko erabiltzaileak prestatzearen garrantzia azpimarratu du.

Testuinguru horretan, erabiltzaileek hizkuntzarekin lotura duten kontsultak egiteko (hiztegiak, adierak eta abar) baliatzen dituzten gailuetarako Euskaltzaindiaren webgunea moldatzearen garrantzia azaldu du. A. Urrutia euskaltzainburuak esan du Zuzendaritzak egitasmo bat abian duela Euskaltzaindiaren webgunea berritzeko, eta mendeurrenerako martxan egotea espero duela. Halaber, nabarmendu du webgunea berritzeko prozesuan euskaltzainen ekarpenak ondo hartuko dituela Zuzendaritzak.

## 5. Euskaltzaindiaren 2018. urteko bilkura arrunten egutegia aurkeztu

Zuzendaritzak Lesakan, udaletxean, 2017ko irailaren 29an eginiko bilkuran onartutako 2018. urteko bilkura arrunten egutegia aurkeztu da ondoren.

Gaia azaldu aurretik, hiru ohar egin dira. Batetik, egutegia bilkura arruntei buruzkoa da soil-soilik. Bestetik, Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren harira, Mendeurrenako batzorde suntsikorrek proposatzen dituen jardunaldi, bilkura zein bestelako ekintzak esku artean daudenean, egutegia osatu egin beharko da. Azkenik, beste horrenbeste egingo da batzordeek, lantaldeek eta egitasmoek proposatzen dituzten jardunaldien, bilkuren zein bestelakoen berri izatean.

A. Toledok aditzera eman du R. M. Azkueren *Ardi galdua* (1918) liburua berrargitaratzea eta horren inguruan zerbait antolatzea garrantzitsua izan daitekeela, gipuzkera osotuan idatziriko liburu horretan azaltzen baita R. M. Azkuek batasunerako proposatzen zuen eredua. A. Urrutiak, aurrekoaz gainera, bestelako lanak kontuan hartzea iradoki du, adibidez, René Lafonen *Le Système du verbe basque au XVIe siècle*.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko, urriaren 16ra arteko epea finkatu da Osoko bilkuran.

## 6. Esku artekoak

**6.1. Langileriaren kudeaketa.** A. Urrutia euskaltzainburuak langileen kontratazioari dagokionez, uztail-urri bitartean izenpetu diren bi lan-kontratuen berri eman du. Batetik, Julen Manterola EHHE egitasmoan merkataritza-kontratu bat izatetik lan-kontratu bat izatera igaro da. Ikertzaile arituko da *Euskararen Hiztegi Historiko Etimologikoa* egitasmoan. Bestetik, Rocio Fernández. Honekin errelebo-kontratua izenpetu da eta aurretiazko erretiro partziala eskatu duen langile bat -Lutxi Alberdi-ordezkatzera dator. Beraz, egoitzako administrari lanak egingo ditu. Bere lan-jarduna %75ekoa izango da eta Lutxi Alberdirena, berriz, %25ekoa.

**6.2. Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak indarrean dagoen lankidetzahitzarmenaren** urteko eranskina izenpetu zuten Baionan, 2017ko uztailaren 24an. 2017. urteko konpromisoak, besteak beste, honako hauek dira:

- Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak Baionan, 2016ko azaroaren 19an, antolaturiko *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa XXI*. Jagon jardunaldietako txostenak eta adierazpenak jasotzen dituen argitalpena lagunduko da.
- EEPk eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen duten Hizkuntza Jardueren Proiektu Deialdira aurkezten diren argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa egiten segituko du Euskaltzaindiak.
- Toponimoen baieztapen prozeduran, EEPk euskal toponimoez dituen baieztapen eskaeretan agertzen diren toponimo arautu gabeei buruzko grafia arautua proposatzeaz arduratuko da Euskaltzaindia.
- Euskararen profesionalen (kazetariak, euskara teknikariak, itzultzaileak, irakasleak, argitalpen ekoizleak eta abar) hizkuntza gaitasuna jasotzeko lankidetzak estutuko da.

2017. urterako Euskararen Erakunde Publikoak Euskaltzaindiari 160.000 euroko diru-laguntza emango dio, 2016an baino 20.000 euro gehiago.

**6.3. Euskaltzaindiak eta Baionako Euskal Erakustokiak lankidetzahitzarmena** izenpetu dute Baionan, 2017ko urriaren 2an. Bi erakundeak elkarlanean arituko dira, euskararen eta euskal kulturaren eremuan dituzten proiektuen gauzatzeko eta Akademiak euskararen alorrean ezarri arauak zabaltzeko. Halaber, Euskaltzaindiak erantzuna emango die Baionako Euskal Museoak eginiko kontsultei, kontsultak euskararen kalitateaz, euskal lexikoaz, gramatikaz, onomastikaz, ortografiaz, erabilera egokiaz eta, oro har, euskararen araugintzaz bestelako gaiei buruzkoak direnean. Era berean, erakunde sinatzaileek hizkuntza baliabideak ezagutarazteko lantegiak edota ikastaroak antolatuko dituzte, Baionako Euskal Museoaren egoitzan edo ikastaro hauen hartzaileentzat egoki izan daitekeen beste tokiren batean. Bestetik, bi erakundeak elkarlanean arituko dira beren biblioteketako funtsak sendotzeko.

2017. urtean bi aldeek lankidetzan hiru egitasmo garatuko dituzte. Batetik, *Euskara ibiltaria* erakusketa (irailaren 11tik gaurdaino zabalik egon dena). Bestetik, *Pirinioetako hizkuntzak* erakusketa (azaroaren 20tik abenduaren 17ra). Azkenik, *Erlea 11*ren aurkezpena (abenduan).

**6.4. Anton Abbadia 2017.** Euskaltzaindiak Anton Abbadia 2017ko sarira proposamen bat aurkezteko gonbita jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik, 2017ko irailaren 19an. Euskaltzaindiak eta Berria Taldeak 2017. urtean 40 urte betetzen dituen UZEI elkarteak aurkeztu zuten irailaren 20an.

### **6.5. Ekitaldiak eta bilkurak. Hiru aurkeztu dira:**

Urriaren 27an, ostiralean, Osoko bilkura Gasteizen egingo da, Eusko Legebiltzarrean, 10:00etan. Egun berean, Euskaltzaindiaren eta Eusko Legebiltzarrearen arteko lankidetzahitzarmen berria izenpetuko da.

Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean dagoen lankidetzahitzarmenaren inguruabarrean, *Astelehen buruzuria* ekimena hasiko da urriaren 9an, astelehenean, 20:00etan. Egitaraua banatu da Osoko bilkuran.

Literatura arlotik eginiko proposamen bati erantzunez, urriaren 11n, asteazkenean, “Gabriel Arestiren Euskal Harriak 50 urte” izenburua duen jardunaldia egingo da Bilbon, egoitzan. Egitaraua Osoko bilkuran banatu da. Jardunaldi hau dela eta, Euskadi Irratiak eta Bilbo Hiria Irratiak programa bateratua egingo dute Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzatik.

**7. Azken ordukoak.**

Azken ordukorik ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:30ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,  
Andres Urrutia

Idazkaria,  
Xabier Kintana